



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, XEDE DUENA IRUÑEKO UDALAREN ZENTRO KOMUNITARIOEN ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN EGUNERAKETAK UKITZEN AHAL DITUEN HERRITARREN ETA ORDEZKARITZA-ERAKUNDEEN IRITZIA JASOTZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1. artikulua xedatzen duenez, Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Administrazio eskudunaren webgunearen bidez, zeinean jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauak ukitzen ahal dituen subjektuek eta erakunderik ordezkagarrienek honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Aldaketa hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Dokumentu honen xedea da galdera horiei erantzutea eta Iruñeko Udalaren zentro komunitarioen erabilera eta funtzionamendua arautzen dituen Ordenantza eguneratu aurreko kontsultaren oinarri izatea, arauaren hartzaile izaten ahal direnek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Iruñeko Udalaren Zentro Komunitarioen erabilera eta funtzionamendua arautzen dituen egungo Ordenantza 2019an onetsi zen, eta Udalaren lokal horien erabileraren eta funtzionamenduaren arau-esparru erregulatzailea da. Honela definitzen ditu ordenantzak lokal horiek: "udal-titulartasuneko ondasunak dira, jabari eta zerbitzu publikokoak izan daitezke edo ondarekoak, Iruñeko auzoetan daude eta elkarte-bizitza zein herritarren parte-hartze aktiboa sustatzea dute xede." Lokal horiek auzotarrek erabiltzeko espazioak dira, irekiak, balioaniztunak eta inklusiboak, auzo bakoitzeko lokal batean edo batzuetan dute egoitza eta Iruña zentro komunitarioen sare batez hornitzen dute".



Onetsi zirenetik, gero eta gehiago erabili dira lokal horiek. 2019an, erabilera egonkorrekotzat jotako 81 elkarte eta talde zeuden, eta 2024-2025eko ikasturtean halako bi baino gehiago dira, 192 talde.

Horrez gain, askotarikoak dira zentroetan parte hartzen duten pertsonak eta horien tipologia; hain zuzen, hori aldatuz joan da, baita gure gizartea ere, migratzaile eta adineko pertsona gehiago baitaude, eta agerikoa da Zentro Komunitarioen parte-hartzean gero eta aniztasun handiagoa dagoela. Ez da ahaztu behar auzoan errotutako ekimen komunitario asko daudela, baita lokal horiek sortu zirenetik presente egon diren eta aniztasun hori osatzen duten haurrendako jarduerak ere.

Testuinguru horretan, gizarte-logikak aldatu ahala jarduera eta behar motak aldatu egiten dira. Izan ere, lokal horiek bizitza komunitarioa indartzeko tresnak direnez, egoera berri horiekin bat etorri beharko dute.

Horri gehitu behar diogu gaur egun zentro komunitarioen sarea 12 auzotan dagoela eta gero eta zentro gehiago daudela, Udalaren asmoa baita auzo guztiek edukitzea mota horretako lokalak.

Ordenantzaren eguneraketak funtzionamendua hobetu nahi du; era berean, udal-baliabideen efizientzia hobetu nahi da, haien helburuetara hobeki egokitu daitezen.

b) Ordenantza aldatzeko beharra eta aukera.

Ordenantza hau eguneratzea bizitza komunitarioa garatzeko aukera bat da, herritarren esku-hartzeak aukera ematen baitu haien beharrei erantzuteko eta komunitateko eta auzoko ekimenak garatzen laguntzeko.

Helburua da gizarte-aniztasuna jasotzea, lokal horiek erabiltzen dituzten taldeek hausnarketa bat egiteko aukera izan dezaten, zentro komunitario bat duten auzoetan partaidetza eta gizarte-kohesio handiagoa ahalbidetze aldera.

Gainera, azken urteetan partaidetzaren arloa asko garatu da; izan ere, 2019an partaidetza eta dinamizazio komunitarioaren inguruko politika publikoak bultzatzeko eta garatzeko lege-estaldura ematen duten bi arau onetsi ziren: Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 FORU LEGEA eta Iruñeko Udalaren Partaidetzako Erregelamendua. Azken horretan jasota dator lankidetzak publiko-soziala Udalaren espazio eta instalazioen kudeaketa partekatua bidez.



Bi arau horiek bizitza komunitarioa eta horren aldeko dinamikak sustatu dituzte, eta, batez ere, horiekiko konpromiso publiko handiagoa, horrela ahalbidetuz herritarrek parte-hartze aktiboagoa izan dezaten hala gai publikoetan nola espazioen kudeaketa partekatuan, esaterako, zentro komunitarioetan.

Hori horrela, agerikoa da Iruñeko Udalaren zentro komunitarioen erabilera eta funtzionamendua arautzen dituen Ordenantza eguneratu behar dela, errealitate berrira egokitzeko xedez, zentroak erabiltzen dituzten elkarteak eta taldeak aintzat hartuta, eta, hala, udal-lokal horien funtzionamendu- eta kudeaketa-esparrua ezartzeko.

c) Arauaren helburuak.

- Zentro komunitarioak definitzea, horien xedea eta helburuak
- Ezartzea nor diren lokal horien erabiltzaileak, haien eskubideak eta betebeharrak
- Zehaztea zer jarduera mota egin behar dituzten
- Antolatzea zentro komunitarioen funtzionamendu-araubidea, erabilera-arauak eta kudeaketa

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak. Ez da jasotzen ordeko konponbide erregulatzailearik eta ez-erregulatzailearik.

PARTE HARTZEKO EPEA

2025eko otsailaren 21etik martxoaren 6ra, egun hori barne.

EKARPENAK BIDALTZEKO:

centroscomunitarios@pamplona.es